

## EGK-k Batzordelraunkorra osatu eta elkarteen hainbat proposamen onartu ditu

- 40. Batzar Orokorrak Ur Kideak Aisialdi Taldea kide berri bezala onartu du eta, orain, 58 elkartek osatuko dute EGK
- “Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloaren” berrikuspena egingo da 2020an zehar

*Bilbon, 2020ko martxoaren 7an.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gaur ospatu duen 40. Batzar Orokorrean hainbat erabaki garrantzitsu hartu ditu. Gazte, gazte-elkarte eta administrazioen arteko zubi-lana egiteko helburua garatzeko 2020rako lan lerro nagusiak adostu dira. Bide horretan, elkarteek aurkeztutako proposamenak eta “Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloaren” berrikuspena, besteak beste, onartu dira.

Bilboko La Bolsa auzo etxean (John Jauregian) egindako batzarrean **Ur Kideak Aisialdi Taldea onartu** dute orain arteko kideek eta, beraz, orain 58 elkartek osatuko dute EGK. Egun Batzorde Iraunkorra honakoa da:

- Presidentea: Maialen Olabe Aguirre (Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea).
- 1. Presidenteordea: Beñat Olave (Bizkaiko Gurutze Gorria Gazteak).
- Diruzaina: Aimar Rico (Uzturre Gazte Bilgunea).
- Bokalak: Kale Dor Kayiko, Gazte Abertzaleak eta Eusko Gaztedi.

### Onartutako proposamenak

40. Batzar Orokorrean EGK-ko kide diren elkarteek eta Batzorde Iraunkorrak proposamenak aurkezteko aukera izan dute. Bakoitzaren aurkezpen eta eztabaidaren ostean **honako proposamenak onartu** dira:

- EGK-ko Batzorde Iraunkorrak Berdintasun protokolo osoaren berrikuspen bat egiteko proposamena.
- EGK-ko Batzorde Iraunkorrak parte hartzeko gutxienerako adina 16 urtera jaisteko proposamena

Indarkeria Matxista eta LGTBI+ fobikoaren aurkako Berdintasun protokoloaren bitartez EGK-k 16 eta 30 urte bitarteko gazteei eragiten dieten eraso matxista eta LGTBI+fobikoak salatzeke adierazpen publikoa egiten du. Hausnarketa honen bitartez edukia eguneratuko da.

Azkenik, parte-hartze eredu berrietara moldatzeko helburuarekin, antolatutako ekitaldi eta proiektuetan parte hartu ahal izateko adin tarteak moldatu dira. Hemendik aurrera lantalde, proiektu, Batzorde Iraunkor zein ekimenetan 16 urtetik 30 urtera parte hartu ahalko da.

Era honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bere diskurtsoa osatu eta berritu du egun gazteriarentzat garrantzizkoak diren gaietan eta bere eguneroko funtzionamendua egokitu du aro berrietara.

## 2020rako hitzarmenak

40. Batzar Orokorrak 2019an burututakoaren memoria eta 2020ko aurrekontua eta lan-plangintza onartu ditu eta, beraz, honako lan-arloak jorratuko dira: etxebizitza, enplegua, hezkuntza (formala zein ez-formala), partaidetza, berdintasuna, bakea eta bizikidetzeta eta komunikazioa.

Gazte, gazte-elkarte eta administrazioen arteko zubi-lana egiteko **hitzarmenak sinatuko** ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Eusko Jaurlaritzarekin (Lehendakaritza, Gazteria Zuzendaritza eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia eta Emakunde), Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiekin eta Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udalekin.

Azkenik, kontu ekonomikoak onartu dira eta EGK-ko legeak hala eskatuta, kanpo kontu-ikuskaritza bat egingo da 2020an zehar

EGKren egunerokotasuna jarraitzeko, [www.egk.eus](http://www.egk.eus) webgunean sartu, [Piztu!](#) buletinean harpidetu edo [Facebook](#), [Twitter](#) eta [Instagram](#) orrialdeak jarraitzea gomendatzen dugu.